VI. EGURTEK SARIAK 2022

« ERAIKUNTZA »

« INTERIORISMOA »

« PRODUKTUAREN DISEINUA »

« ARGITALPENA »

SARI BEREZIAK:

TOKIKO ZURA (BASQUE QUALITY)

BOIS/EGURRA/MADERA (BEM)

OINARRIAK

1 – HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

Zurezko Arkitektura eta Eraikuntzaren Nazioarteko 9. Foroaren barruan, Egurtek Sarien 6. Edizioaren deialdia egingo da, zuraren erabilera eta sustapen gailenen inguruko ekintza zehatzak jendaurrean nabarmentzeko xedearekin.

Bilbao Exhibition Centre-k, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala eta Baskegurren laguntzarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren babesarekin, zuran oinarritutako Arkitektura eta Diseinuko zuraren erabilera eta diseinu onenei emango die saria. Horrez gain, zuraren erabilera balioztatzen duten argitalpen gailenak ere sarituko ditu.

Helburuak bi dira: alde batetik, talde profesionalean arkitekturari buruzko iritzi- edo eztabaida-estatua sustatzea eta zuraren sektoreko profesionalen lana gizarteari ezagutaraztea; eta, bestetik, material horrek dituen aukerak esploratzen dituzten argitalpenak aintzatestea.

Deialdi honek 4 kategoria eta bi sari berezi ditu:

A – ERAIKUNTZA

Arkitekto batek edo Arkitekto talde batek egindako eta zuraren erabilera nabarmena duten oinplano berriko, berritze eta birgaitze lanak eta hiri eta paisaia birmoldaketetan esku-hartzeak. Halaber, obraren gauzatzean parte hartu duten eragile guztiak aintzatetsiko dira (Arkitektoa, Jabea, Eraikitzailea, etab.). Arkitekto bakoitzak edo Arkitekto talde bakoitzak obra bakarra aurkeztu ahal izango du.
Saria amaitutako obra bati emango zaio, eta ez ibilbide profesional bati.

Diseinuaren oinarrizko elementuen bikaintasuna goraipatu nahi da, batez ere, proiektuaren funtziora moldatu izana eta funtsezko alderdi arkitektonikoak. Kontutan hartuko dira baita ere etxebizitzara, obra zibilera, eraikuntza industrialera eta birgaitzera zuzendutako ingurugiroko alderdiak, alderdi tekniko, urbanistiko eta ekonomikoak eta lurraldean nola barneratzen den.

Era berean, diseinua, ingeniaritza, aurrezpen energetikoa eta jasangarritasuna bezalako alderdiak balioetsiko dira; hala ere, alderdi horiek guztiak biltzen dituen ikusmolde globalari emango zaio saria, arkitektura-proiektuaren funtsezko baldintzatzat zura duena, hain zuzen ere.

B – INTERIORISMOA

Planta berriko, birgaitze edo birgaitze obrak barruko espazioetan; eta baita Arkitekto/Arkitekto Tekniko/Dekoratzaile edo Barne-diseinatzaile edo profesional talde batek zuraren erabilera nabarmenarekin egindako aldi baterako ingurune-muntatzeak ere. Halaber, obraren gauzatzean parte hartu duten eragile guztiak aintzatetsiko dira (Teknikari adituak, Jabea, Eraikitzailea, etab.). Pertsona edo talde bakoitzak obra bakarra aurkeztu ahal izango du.
Saria amaitutako obra bati emango zaio, eta ez ibilbide profesional bati.

Diseinuaren oinarrizko elementuen bikaintasuna goraipatu nahi da, batez ere, proiektuaren funtziora moldatu izana eta funtsezko alderdi arkitektonikoak. Kontutan hartuko dira baita ere etxebizitzara, obra zibilera, eraikuntza industrialera eta birgaitzera zuzendutako ingurugiroko alderdiak, alderdi tekniko, urbanistiko eta ekonomikoak eta lurraldean nola barneratzen den.

Era berean, diseinua, ingeniaritza, aurrezpen energetikoa eta jasangarritasuna bezalako alderdiak balioetsiko dira; hala ere, alderdi horiek guztiak biltzen dituen ikusmolde

globalari emango zaio saria, interiorismoaren funtsezko baldintzatzat zura duena, hain zuzen ere.

C – PRODUKTUAREN DISEINUA

Bukatutako obra edo sari honetarako espresuki pentsatutako argitaragabeko proposamena; pertsona fisiko edo juridikoek egindakoa, adin nagusikoak, ikasleak edo graduatuak. Parte-hartzaile bakoitzak bi obra aurkeztu ahalko ditu.

Objektu, altzari edo sistema baten (etxekoa edo hirikoa) diseinu jasangarria duten obra burutuak edo proposamen argitaragabeak espero dira; gutxienez, maila hauetako batean berrikuntza ekarriko dutenak: proposamen kontzeptual berriak, gizarte mailako ekarpenak, bizimodu berrietarako egokitzapena, kontsumo modu berrietarako proposamenak, alderdi formalak, fabrikazioa, berrikuntza teknologikoa, materialen osagarritasuna, etab.

Diseinuaren oinarrizko elementuen bikaintasuna baloratu nahi da, batez ere, objektuaren funtziora eta funtsezko diseinu- eta eraikuntza-alderdietara egokitzea; baina baita altzarien edo hiri-ekipamenduaren elementu bat gauzatzeko erabiltzen diren ingurumen-, teknika-, erabilera-, hirigintza-, lurraldean integratze eta ekonomia-alderdiak ere.

Era berean, diseinua, ingeniaritza, fabrikazioa, aurrezpen energetikoa eta jasangarritasuna bezalako alderdiak balioetsiko dira; hala ere, alderdi horiek guztiak diseinu jasangarriaren inguruko kontzeptu ikerketa- eta berrikuntza-balio altua duten beste batzuekin biltzen dituen ikusmolde globalari emango zaio saria, interiorismoaren funtsezko baldintzatzat zura duena, hain zuzen ere.

Halaber, kategoria honen helburua profesionalen eta enpresen arteko hurbiltasuna sustatzea da; eta baita zuraren sektorean diseinu jasangarriaren kultura bultzatzea ere, berrikuntzaren prozesuan duen garrantzia eta sektorearen arrakastari egin dakiokeen ekarpena erakusteko.

D – ARGITALPENA

Zurari buruz edozein hedabidetan agertutako argitalpenak.
Lanak grafikoak (monografikoak, artikuluak, publizitate piezak, marka...), entzunezkoak (irratia,...), ikus-entzunezkoak (telebista, zinema,...) edo Internet agertzekoak (web, blog,...) izan daitezke.

Kategoria honetara aurkezten dena argitalpenaren autorea ez den beste pertsona edota instituzio bat bada, autoreak/autoreek sinatutako baimena erantsi beharko da.

Egindako argitalpenak hemen aurkeztu daitezke:



COAVN
Lehiaketa Bulegoa
Alda. Mazarredo 69-1ª planta
48009 Bilbao (Bizkaia)

* Profesional edo/eta profesional talde bakoitzak gehienez 2 lan aurkeztu ahal izango ditu kategoria bakoitzean.

SARI BEREZIA - TOKIKO ZURA (BASQUE QUALITY)

Euskadiko Zuraren Sektoreak bultzatutako ekimenen barruan, eta tokiko zuraren erabilera sustatzeko eta zabaltzeko Eusko Jaurlaritzaren Plan Estrategikoarekin bat etorriz, kategoria honetan, Eraikuntza, Interiorismoa eta Produktuaren Diseinua kategorien barruan, Intsinis Pinuaren eta EAEko beste espezieen (Haritza, Pagoa eta Alertzea) zuraren erabilera garrantzitsua duten proposamenak saritu nahi dira.

Eraikuntza, Interiorismo eta Produktuaren Diseinu kategoriei aurkeztutako proposamenen artean, EAEko Intsinis Pinuaren eta/edo beste espezie batzuen (Haritza, Pagoa eta Alertzea) erabilera bereizgarriaren eskakizuna betetzen dutenei emango zaie.

SARI BEREZIA – BOIS/EGURRA/MADERA (BEM)

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko Bioekonomia garatzeko funtsezko elementu gisa administrazio publikoek zuraren alde egiten duten apustua sustatu eta ezagutarazteko, Eraikuntza, Interiorismoa eta Produktuaren Diseinua kategorietan (A, B eta C kategoriak) aurkeztutako eta EKIMEN PUBLIKOAK sustatutako obra bat sarituko da lehenengo aldiz.

Sari berri honetarako hautagai izan ahal izateko, obrak Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen eremu geografikoaren baitako Administrazio publiko batek eginak edo sustatuak izan beharko dira.
* Bi sari berezietara aurkezteko aukera dago.

2 – LEHIAKETAREN FASEAK

Lehiaketa honek hiru fase ditu:

Kandidaturak internet bidez aurkeztuko dira, 2022ko otsailaren 28a baino lehen, 12:00etan, posta elektroniko bidez. Aurkeztu beharreko dokumentazioa helbide elektroniko honetara bidali behar da: premiosegurtek@coavn.org

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, 7 eguneko epea irekiko da, gutxienez, jasotako hautagaiek aurkeztutako dokumentazioan falta den informazioa eskatzeko. Epe hori igaro ondoren, Epaimahaiko Idazkariak akta egingo du onartutako proposamenen eta deialdiaren oinarriak ez betetzeagatik baztertu diren proposamenen zerrendarekin.

Jasotako dokumentazioa ezingo da aldatu entrega datatik aurrera.

Epaimahaiaren erabakia ekitaldi instituzional batean irakurriko da, sarietara aurkeztutako proiektuen erakusketaren inaugurazioan, 2022ko apirilean, behar bezala argitaratu eta aurkeztutako guztiei jakinaraziko zaien leku eta orduan.

Sariak banatzeko ekitaldia 2022ko urriaren 20an, ostegunean, egingo da BECen, Zurezko Arkitektura eta Eraikuntzaren Nazioarteko 9. Foroarekin bat eginik.

3- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Hautagai izateko premiosegurtek@coavn.org helbide elektronikora bidali beharko da honako dokumentazio hau:

2022ko otsailaren 28ko 12:00ak baino lehen:

- A Eranskina. Parte hartzeko eskabidea, PDF formatuan.

- PDF formatuko panela, honako ezaugarri hauek dituena:

  - Aurkezpena A1 formatuan (594 cm x 841cm), konposizio bertikala.
  - Gutxieneko bereizmena, 300 pixel hazbeteko.
  - Gehienez 10 MB
  - Aurkezten den kategoria eta Egurtek 2022 Sarien logoa izan behar du, hizkuntza bakar batean, aukerakoan, goiko eskuinaldean, 8 cm x 8 cm tamainan. Logoa lehiaketaren webgunean deskarga daiteke:
  - https://egurtek.bilbaoexhibitioncentre.com/premios-egurtek-2022/

Eraikuntza, Interiorismoa eta Produktuaren Diseinuaren kategorietako panelek hauek izan behar dituzte:

- Obraren fitxa teknikoa, datu hauek jasoz: kokalekua, sustatzailea, eraikitzailea, proiektuaren egileak eta obraren zuzendaritza, azalera, aurrekontua eta hasierako eta bukaerako datak.
- Obraren azalpen memoria laburra, zura edo hornitzaile ziurtatua, eraikuntzak dituen berezitasunak eta bertan erabili diren soluzio berritzaileak.
- Solairuen, altxaeren, sekzioen planoak, eta proiektua behar bezala ulertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio guztia.
- Koloretako bi argazki, gutxienez, tamaina librekoak

Argitalpena kategoriako panelak hau izan beharko du:

-Pertsonak eta instituzioak aurkeztutako lana ulertzeko beharrezkotzat jotzen duen informazioa.

4 - EPAIMAHAIAREN OSAKETA

Arkitekturaren, diseinuaren, fabrikazioaren eta zuraren arloan ospe handia duten pertsona profesional eta akademikoek osatuko dute epaimahaia:

PRESIDENTEA
- COAVN-ko dekanoa edo eskuordetzen duen Gobernu Batzordeko kidea.

KIDEAK
- *UPV/EHU*
- *BASKEGUR*
- *DPA ARQUITECTURA*
- *EGURTEK 2018 SARIEN IRABAZLEAK*
- *BILBAO-BIZKAIA DESIGN & CREATIVITY COUNCIL*
- *BIZKAIKO BARNE DEKORATZAILE ETA DISEINATZAILEEN ELKARGO OFIZIALA*
- *EIDE (Euskal Diseinuaren Elkartea)*
- *Epaimahaiko idazkaria COAVN Lehiaketa Bulegoko kidea izango da.*

Epaimahaia eratu ondoren, honek aurkeztu diren lanen dokumentazioa aztertuko du; eta kategoria bakoitzean eman ditzakeen sari edo aipamen bereziak jasotzea merezi duten lanak aukeratuko ditu.

Epaimahaiak eskubidea izango du lanak berriro kategoriaren batean sailkatzeko.

Halaber, Epaimahaiak egileei eskatuko die obra behar bezala ulertzeko beharrezkotzat jotzen duen informazioa, egileari eta jabeari jakinaraziz.

Sariak ezin izango dira eman gabe utzi.

Epaimahaiaren eztabaidetarako beharrezkoa izango da kideen gehiengo osoa bertan egotea, betiere Presidentea eta Idazkaria bertan direla.
Presidentearen botoa kalitatezkoa izango da, eta idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta haren aurka ezin izango da inolako formako edo naturako errekurtsorik edo erreklamaziorik aurkeztu.

Epaimahaikideek eta haien bazkide profesionalek ezingo dute saririk eskuratu.

Epaimahaiak atal honen betetzearekin zerikusia duten gaiak ebatziko ditu.

5- SARIAK

6 sari emango dira; dagokion kategoria kontutan hartu gabe, saridun bakoitzak hau eskuratuko du.

- Garaikurra
- 750€

Epaimahaiak kategoria horretako accesitak eman ahal izango dizkie sari hori merezi duten lanei, eta diploma bat emango die.

Sarien emaitzei buruzko jakinarazpenak eta prentsa-oharrak egingo dira, eta Arkitektura, Eraikuntza, Diseinu eta Habitatean (prentsa, Internet, irratia eta telebista) espezializatutako komunikabide nagusien artean banatuko direnak.

Gainera, aurkeztutako lan guztiak EGURTEKen eta EHAEOren webguneetan jarriko dira ikusgai, baita Foroaren erakusketa gunean ere, A1 inprimatze-formatuan (hau antolatzailearen kontura izango da).

6- KONTAKTUA ETA IDAZKARITZA TEKNIKOA

Sariei buruzko korrespondentzia guztia Sarien Idazkaritza Teknikoarekin egingo da. Hona hemen Idazkaritzaren datuak:

- Helbide elektronikoa:premiosegurtek@coavn.org
- Webgunea: www.coavn.org
- Telefono zenbakia: 944 23 16 36 (7. luzapena)

2022ko otsailaren 14ko 14:00ak arte kontsultak idatziz eta adierazitako posta elektronikoaren bidez egin ahalko dira. Sarien Idazkaritza Teknikoak kontsulta horiek aztertu eta ebatziko ditu, eta horretarako behar den aholkularitza teknikoa eta legala eskatuko du. EGURTEK eta EHAEOren webguneetan argitaratuko da egindako kontsulten ebazpen orokorra (Ohiko Galderak).
Kontsulta eta erantzunen zerrenda Epaimahaiari emango zaio, eratzen den unean.

7- JABETZA INTELEKTUALA

Egileek aurkeztutako lanen jabetza intelektuala mantenduko dute, eta ezingo dute, ezta saritutakoek ere, lan horiek oinarri hauetan aipatzen diren helburuak ez diren beste helburu batzuetarako erabili.

Parte hartzaileek sariak eta haien emaitzak jendaurrean jartzeko behar diren ustiapen eskubideak baino ez dizkiote lagako deialdia egin duen entitateari, hala nola aurkeztutako lanak argitaratu eta erakustea.

Oinarri hauetan aurreikusten ez dena hauek arautuko dute: Jabetza Intelektualari buruzko apirilaren 12ko 1/1996 Legeak, bere aldaketekin, eta aplikatzekoak diren gainerako lege-xedapenek.

8- OINARRIEN ONARPENA

Sarietara aurkezteak esan nahi du parte-hartzaileek guztiz onartzen dituztela haien oinarriak, eta bat datozela deitzaileak aurkeztutako obren dokumentazioa erabiltzearekin, egoki iritzitako argitalpenak eta erakusketak egiteko helburuarekin. Oinarri hauek interpretatzerakoan zalantzarik egonez gero, Epaimahaiak ebatziko du, eta erabakia apelaezina izango da.

Antolatzaileak:

ARQUITECTURA Y TÉCNICAS DE LA MADERA

PREMIOS EGURTEK

Antolatzaileak:

BILBAO EXHIBITION CENTRE

EXPOSSIBLE!

COAVN COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO

EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA

BaskEgur

ASOCIACIÓN DE LA MADERA DE EUSKADI

EUSKADIKO EGURRAREN ELKARTEA

Babeslea:

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE